

## Hizkuntzen kontaktoaz eskolan

Goi-zikloko Erreformako Koordinataldea

Euskal Herriko edozein ikastetxetan hiru hizkuntzen erabilera hezurmamitzen da eta helburuak hizkuntz ereduaren arabera definitzen dira, baina, hiru hizkuntzen arteko ukipena zenbateraino hartzen da kontutan? Goi-zikloko Erreforman hizkuntzen arteko arlo hau jorratu beharra ikusi eta, buruan genituenak paperera isurtzeari ekin diogu ondoko puntuak segituz; hasieraren hasieran gaude baina.

- 1) Helburua, hiru hizkuntzen arteko ukipenaz baliatzea.
- 2) Lanerako markoa.
- 3) Adibide gisako materialea.

### 1. Helburua, hiru hizkuntzen arteko ukipenaz baliatza

Eskolan irakasten diren hizkuntzen egoera ikusirik, ondoko puntu hauez ohartzen gara:

- a) Gaur egun, hiru hizkuntza nolabait menperatzea planteiatzen den une honetan, haurrari zein hizkuntzatan zenbateraino eskatzen diogun zehaztu beharra ikusten dugu. Izan ere, benetako

haur elebiduna al da helburua? Gutako zenbat gara benetako elebidun, alegia, elebidun oreaktuak? Zalantzarak gabe, hizkuntza bakoitzean nolako konpetentzia lortu nahi den zehatzago definitu beharrean aurkitzen gara. Eta definitu behar hau area-gotu egiten zaigu etorkizunari begiratuz gero, laster euskaldunak hiruzpalau hizkuntza erabili beharko bait ditu.

- b) Aldi berean, errealitye soziolinguistiko arras ezberdinez inguraturik, hona kontraesana: eredu bereko ikastetxeek, hizkuntz errealityeezberdinak bizituz, helburuberberak dauzkate definiturik. Bizio zaila zaio horietako irakaslegoari, era eraginkor batetan, ulermen eta adierazmenean, hizkuntza bakoitzean noraino iritsi nahi den zehaztea.
- d) Erreforman dauden A ereduko hiru ikastetxeek ingurunea gehienbat erdalduna dute, baina D eredukoetan ez da hori gertatzen. Bost D ereduko ikastetxe izanik, hiru hizkuntz errealitye nabarmen ezberdinak aipa ditzakegu:
- ingurune euskaldunean bizi diren haurrak (Zaldibiko Herri Eskola)
  - euskara eta erdarazko ingurune elebidunean bizi diren haurrak (Elgoibarko Ikastola)
  - ia erdara soilezko ingurunean bizi diren haurrak (Bilboko Urretxindorra Ikastola)
- Ikastetxe hauetan euskara eta erdararen tratamentua gehiago taxutzeko premia nabaria da. Taxutu diogu, egotez trataera bat antolatua bai bait dago. Esan nahi bait da, urteen poderioz, liburu urdinaren irakurketa eta bertako esperientziak izaten bait dira gidari, ezinbestean, helburuak antolatzerakoan.
- e) Bitartean, haurrak, hizkuntzak apartean eta berezirik dauden irlak balira bezela jasotzen ditu –orain euskarazko klasea, gero erdarazkoa, hurrena ingeleseko...–, bizpahiru hizkuntza batera ikasteak zer suposatzen duen, hizkuntzen arteko kontaktuak zer ekar lezakeen inoiz erreparatu gabe. Gure ustez, hauxe da erantzun beharreko galdera: Hiru hizkuntza batera ikasteak lanerako eremu berri bat agertzen digu bai ala ez; hiruen artean erlazio aberasgarrik sortzen da bai ala ez. Gu baietzean gaude.

Esandakoak laburbilduz, programa lekuo egoerari egokitzearekin batera, nabari-nabarian, hiru hizkuntzetako helburuak era eragin-korrean formulatzeko premia dager. Eta egokitze lan honetan kokatu behar da "hizkuntzen ukipenarena". Ukipenak ekarpen baikorra suposatzen duela eta honez baliatu beharrean gaudela uste osoa dugu. Baina horretarako lehen-lehenik ezinbestekoa dugu lan-markoa definiztea. Hurrengo atalean horixe saiatuko gara azaltzen.

## 2. Lanerako markoa

Ondoren bost puntuatan lan-markoa definitzen duten helburuak azaltzen dira; helburu bakoitza maiuskulaz idatzirik agertzen da puntuaren bukaeran.

- 1) Haur elebidunak bi hizkuntzetan gutxienezko ezaguerak ditu eta etengabe alda dezake komunikaziorako erabiltzen duen hizkuntza. Aurrean nor daukan, bera non dagoen, zer esateko den haurrak badaki zein hizkuntza erabili beharko duen. Kodea aldatzeko mekanismu bizia du martxan, zenbait kasutan bost urtetatik edo lehenagotik finkatua. Hau haurelebidunaren ezaugarria dugu, gutako askok –euskaldu berri orok bai, behintzat-askoz beranduago eskuratu dugun zerbait, zoritzarrez, O.H.O. osoan mekanismu honek indarrean irautea lortu behar dugu.

**Helburua: HIZKUNTZATIK HIZKUNTZARA ALDATZEKO MEKANISMUA INDARTZEA.**

- 2) Arazo bat: Haur askorentzat, txikitandik euskara-erdara elebidun direnentzat hizkuntzaz aldatzea kontu erraza izan badaiteke ere, hizkuntza batetan maila dexente galdu duen batentzat edota ikasten ari denarentzat ez da hain samurra izango. Hori bi hizkuntzari dagokienean. Baina, bestalde, ingelesaren kasuan eta planteamendu komunikatibo batetan, hirugarren hizkuntzak bere presentzia eduki beharko luke gelatik kanpo ere, esaterako, proiektu orduetan edo bestelakoetan. Hau da, hizkuntzekiko orduka antolatzea gainditu behar dela uste dugu eta ikastetxe mailako planteamendu komunikatiboago bat eratu. Honek haurraren hiru hizkuntzekiko jarrera egokia sendotu bait de-

zake, haurrek hain barneratua duten hizkuntza/ikasgela eskema hautsiz.

**Helburua:** EGUNEROKO BIZITZAN HIRU HIZKUNTZA HAUEN PRESENTZIAZ JABETU ETA ARDURATU. BIZPAHIRU HIZKUNTZA ERABILTZEN DIREN EGOERETAN EDO HIZKUNTZAZ ALDATU BEHAR DIRENETAN GOGO ONEZ JARDUTEA.

- 3) Arazo bi: "Zergatik dakizularik ez duzu esan? Zer gertatu da?". Elebiduntze prozesuan, hizkuntza batetik bestera pasatzean, maiz huts handiak egiten ditugu. Errore eta interferentziien mundu hau asumitu behar da, eta horretarako, hizkuntzaren indarra-en eta maiztasunaren arteko erlazioaz jabetzea ezinbestekoa da: zerbaite ondotxo jakinda zergatik esaten dugun erdal eran, zergatik gertatzen den hain zaila euskaraz eta erdaraz egoki hitzegitea... Koxka hauek guztiak logika batekoak dira eta nork bereak gainditu behar ditu bere prozesu indibiduala onartuz.

**Helburua:** HIZKUNTZATIK HIZKUNTZARA ALDATZEKO ZAILTASUNEZ JABETU ETA NORBERAREN PROZESA ONARTZEA.

- 4) Hizkuntzalaritza konparatuak, hizkuntzen ukipena nola arautu behar den, zer probetxu eta nola atera daitkeen erakusten digu. Horrela, hizkuntza guztiak duten oinarri amankomunean ardatzuko dugu gure zeregina, hizkuntzen konparaketa bat eginet bi plano nagusi hauetan: 1) egitura: hizkuntzaren egitura-zio propioan, eta 2) esanahizkoa: hitzen mailan, modismu mailan... Oinarri amankomun horretan, aldi berean, hizkuntzen nortasun konparaketa burutuko dugu "hizkuntza gure historia, gure herri osoaren ispilu da" esaera irizpidetzat hartuz. Une honetan kontestuak duen garrantzia nabarmenduko zaigu; "non (lekua) eta noiz (garaia) zer esaten den (mezua)" begiratuko bait dugu.

Era honetara, hizkuntzen oinarri amankomuna ardatz hartuta, hizkuntz ausnarketarako informazioa bilduko dugu, gero, aktibitateetan erabiliko duguna.

**Helburua: HIZKUNTZA BAKOITZAREN NORTASUNAREN EZAGUERA BAT IRISTEA.**

**HIZKUNTZA BAKOITZAREN ALORRAK BE-REIZTEN JAKITEA BI PLANOTAN: EGITURA-LEAN ETA ESANAHIZKOAN.**

- 5) Hizkuntz ausnarketa ikasegoera komunikatiboetan emango da, ondorio bezala. Gaur egun haur elebidun batek bizitzen dituen une batzuk aukeratuko ditugu, hain zuzen bizpahiru hizkuntza erabiltzen direneko uneak. Horietan hizkuntzen kalibratzea eskatuko zaio; konparaketa, itzulpen zuzena, itzulpen egokitua edota laburtua egitea planteiatuko; hona adibide batzu:

- Gidari-lanak: museo batetan, kalean kanpotarrei...
- Prentsarekikoak: iragarkiak, tituluak, elkarrizketak irratiz nahiz telebistaz, artikuluak...
- Ikusmiran(hizkuntzen presentziabisuala): kalekodenda-erro-tuloetan...
- Bapatekoitzulketa-uneak(interpretatzailarenak):telebistako dokumentalak, ahozko diskurtsoak...
- Kontutxoak eta graziak (hanka sartzeen logika): euskaldun zahar/berriek erdara/euskaraz...
- Aurkezle-lanak: "Ladys and gentleman"...
- Eskabide-zereginak: inprimakiak betetzea, bekak eskatzea...

Horrelako saio batetan jardun ondoren ausnarketa etorriko da:

- Zuzen aritu ote naiz?
- Esanahia ondoen adierazten zuena aurkitu al dut?
- Egin dudan hautapena zilegizkoa ote zen?
- Era laburragoan ezin al zen egituratu?
- Beste era ezberdinetara esatea ba ote zegoen?
- ... ...

Lan honetarako badago ikasleek etengabe erabiliko duten irizpide bat: baliokidea, parekoia izatea, baliokidetasun irizpidea. Askotan, honetan oinarrituz, gerta litekeen okerra arrazoituko dute, irtenbide ezberdinak arakatuko eta hizkuntzen arteko auziak erabakiko dituzte. Beraz, bistan da, buru-flexibilitateari eta hizkuntz imaginazioari gogotik eragin beharko dietela zeregin hauetan.

**Helburua: MEZUAREN DESKODEKETAN ETA BIRFOR-MULAKETAN TREBATZEA.**

**BALIOKIDETASUN IRIZPIDEA TAXUZ ERA-BILIZ AUKERA EZBERDINAK ARRAZOIT-ZEN JAKITEA.**

### Azken komentarioa

Bost puntu hauetan adierazirik geratu da, grosso modo bada ere, hiru hizkuntzen ukipenaz nola balia gaitezkeen. Marko bat zehazten saiatu gara, aldi berean, ukipen hori jakinduri iturri bezala nola erabil daitekeen azalduz. Baina faltan dugu markoari azken komentarioa egitea.

Izan ere, maiuskulaz emandako helburuak ez dira kualitatiboki berdinak. Hasieratik abiatuta, bigarren eta hirugarren puntuak aktitudinalak dira, jarrerazkoak, eta laugarrena berriz edukizkoa. Gainontzeakoak ikasleen ahalmen edo trebetasunei zuzenduak daude. Bereizkuntza hori beharrezko da planteamendua bere osoan ulertuko bada. Helburu guztiak beharrezkoak bait dira eta unitate didaktiko berean, ikasegoera berean emango dira: Hizkuntzaldamena (hizkuntzaz aldatzeko ahalmena) lantzerakoan eduki batzu baliatuko ditugu, aldi berean ikasleengana jarrera aproposak indartzen ditugularik. Batzala bestea ahazteak planteamendua hankamotz utzik oso luzea. Horrexegatik, segidan, lan-markoa definitzen duten helburuak sailkaturik gogoratzentzutako ordene honetan: aktitudezkoak, ahalmenezkoak eta edukizkoak.

- Eguneroko bizitzan hiru hizkuntza hauen presentziaz jabetu eta arduratzea.
- Bizpahiru hizkuntza erabiltzen diren egoeretan edo hizkuntzaz aldatu behar direnetan gogo onez jardutea.
- Hizkuntzatik hizkuntzara aldatzeko zaitasunez jabetu eta norberaren prozesua onartzea.
- Hizkuntzatik hizkuntzara aldatzeko mekanismua indartzea.
- Mezuaren deskodeketan eta birformulaketan trebatzea.
- Baliokidetasun irizpidea taxuz erabiliz aukera ezberdinak arra- zoitzen jakitea.
- Hizkuntza bakoitzean nortasun ezaguera bat iristea.
- Hizkuntzabakoitzaren alorrak bereizten jakitea biplanotan: egituralean eta esanahizkoan.

### 3. Adibide gisako materialea

Orain arte esandakoak gaur eguneko ikastetxeetan praktikara eraman daitezke. Aski litzateke programako hutsune hau beteko luketen unitateak eskuratzea, noski, hauek egoki burutzeko irakaslegoa gaiari dagokionean jantziko lukeen prestakuntza batera antolatzu. Ondoren unitate didaktiko baten lau aktibitate azalduko ditugu, aipatutako hizkuntzen ukipena nondik nora ulertzten den adierazgarri, zera hauen-gatik:

- Aktibitateetan bizpahiru hizkuntza erabiltzen dira,
- Hizkuntzen arteko konparaketa gauzatzen da bi planotan:
  - . esanahizkoan: generoa, itzulpen zuzena/egokitura
  - . egituralean: hizkuntza deklinatua/preposizionala, genitibo sajona, esaldiaren ordena.
- Hizkuntzak erabili ondoren ausnartu egiten da.

Ikusten denez, hizkuntzaz aldatzeko mekanismua eta mezuaren deskodaketa ez dira azaltzen adibidearen laburragatik. Ikasegoera osoan harturik azalduko lirateke. Jo dezagun bada aktibitateetara.

1. Kepa Londresen inglesa ikasten ari den mutil eibartarra duzu. Hemezortzi urte ditu eta hiru hilabete daramatza jo eta ke bere hirugarren hizkuntza lantzen.

Gaur Eibarko bere lagunak bisitan etorri zaizkio eta, iritsi bezain pronto, iragarki bat erakutsi diote. Bertan albiste pozgarria dator Keparentzat: bere ikastetxean subentzia jaso berri dute ikus-entzungailutarako, bere gaiarako dirua! Bazen garaia!

Irakur ezazu zerorrek ere:

**AYUNTAMIENTO DE EIBAR  
ANUNCIO**

Para la contratación de diferentes obras en los centros escolares de:		
Virgen de Arrate	Reparación cubierta	3.686.327,- pts.
	Sala de audiovisuales	282.122,- pts.
Urkizu	Gimnasio	210.216,- pts.
	Comedor	324.036,- pts.
Parvulario Sansaburu	Eliminar foso juegos	1.458.421,- pts.
Centro Materno Infantil	Quitar humedades	1.800.050,- pts.

Los proyectos y demás documentación se hallan expuestos en la Sección Técnica de Obras de este Ayuntamiento y podrá optarse a la totalidad o parte de las obras, debiendo presentar las ofertas antes del día 21 de noviembre de 1986, a las 13 horas.

Eibar, 11 de noviembre de 1986  
EL ALCALDE

**EIBARKO UDALA  
IRAGARKIA**

Ikasketxe hauetan zenbait lan kontratatzeko:

Virgen de Arraten	Teilitua konpondu	3.686.327,- pta.
Urkizun	Ikus-entzungailuen gela	282.122,- pta.
Sansaburu Haurtzaindegia	Gimnasioa	210.216,- pta.
Haur Ama Zentroa	Jangela	324.036,- pta.
	Jolas zuloa kendu	1.458.421,- pta.
	Umeltasunak kendu	1.800.050,- pta.

Proiektuak eta gainerantzko agirizta Udal honetako Lan Sekzio Teknikoan aurkitzen dira eta lan batzuk edo denak har daitezke, eskaintzak azaroaren 21a baino lehen aurkeztuz.

Eibarren 1986ko azaroaren 11an

ALKATEA

- Zure ustez, iragarkia ondo dago bi hizkuntzetan?  
(ausnarketa: hizkuntz zentzua nork berea)
  - Erdaraz tituluak hiru hitz ditu eta euskaraz, berriz, bi:  
Zergatik erdaraz tituluak beti hitz gehiago?  
(ausnarketa: hizkuntza deklinatua ≠ hizkuntza preposizio-nala)
2. Berria ospatzeko, arratsaldean beste gauzen artean Madame Tussaud-en museora joatea erabaki dute. Han “HORROREEN GELA” izenekoa omen dago guztiz ikusgarria! Den-dena argizarizkoa!
- Museoko ateetan bertan “Drakula Gaztelurako bidea” bideoa entzuten zen. Irakurri (2) ondoren zera erantzun ezazu:
- Espresio multzo hauetan zein dira antzeko eta zein ez?  
Zergatik?
    - The road to Castle Dracula. Abokatua
    - Dracula Gaztelurako bidea. Lawyer
    - El Camino del Castillo de Drácula. Abogado
 (ausnarketa: egitura antzekoa/iturburu bera)
3. Bi koadrotako esaldiak (3) ingelesetik euskaratzen ari zela, madrildar batzuek ea gazteleraz ere egingo zuen. Eta halaxe egin du Kepak.
- Zuk ere Kepak bezala egin ezazu, euskaratu eta gazteleratu bi esaldiak: Zein da euskaraz bezelaxe?
- Eta bestea?



4. Azkenean HORROREEN GELAra iritsi dira. Era guztietako sufrimenduak beha daitezke (4) bertan. Kepak irakurtzen segitzen du:
- “The Guillotine” ... Guillotina
  - “The cook in the Garrote” ... Sukaldaria Garrotean  
– Nola esango zenuke gaztelera?
- (ausnarketa: generoa)

#### **1. Drakula Gaztelurako Bidea**

Jonathan Harker dut izena. Abokatua naiz eta Londresen bizi naiz. Due-la zazpi urte gauza izugarriak gertatu zitzaitzidan. Nere lagun minetatik asko baitaere arriskuan zeuden. Azkenean, orduko gertakizun latza kontatzea erabaki dugu.

Nire lanaren alderdi bat, atzerrian bizi den jende aberatsari Londresen etxeak aurkitzea da. 1875 urte hasieran eskutitz bat jaso nuen Transilvaniatik, Europako ekialdean dagoen herria. Eskutitza “Drakula Kontea” izeneko gizon aberats batena zen. Etxe bat erosi nahi zuen Londrestik gertu.

## 1. El Camino del Castillo de Drácula

Mi nombre es Jonathan Harker. Soy abogado y vivo en Londres. Hace unos siete años, me ocurrieron unas cosas raras y terribles. Muchos de mis queridos amigos estaban en peligro, también. Por fin hemos decidido contar la historia de aquel tiempo terrible.

Una parte de mi trabajo consiste en encontrar casas en Inglaterra para gente rica que vive en países extranjeros. A principios de 1875, recibí una carta de Transilvania, país al este de Europa. La carta era de un hombre rico llamado el Conde Drácula. Quería comprar una casa cerca de Londres.

## 1. The Road to Castle Dracula

My name is Jonathan Harker. I am a lawyer and I live in London. About seven years ago, some strange and terrible things happened to me. Many of my dear friends were in danger, too. At last we have decided to tell the story of that terrible time.

Part of my work is to find houses in England for rich people who live in foreign countries. At the beginning of 1875, I received a letter from Transylvania, a country in Eastern Europe. The letter was from a rich man called Count Dracula. He wanted to buy a house near London.

## Itzulpen arazoei buruzko irakurketa: egoera eta gogoeta

### EL GENERO NATURAL Y EL GRAMATICAL

12.1. En Inglaterra, en un castillo, se invita a comer de nuevo a los parientes por primera vez después de muchos meses tras la muerte de la señora de la casa. La cocina del castillo no ha perdido nada de su exquisitez. Agradecido, el cuñado se dirige al dueño de la casa: Same cook I suppose, Maxim? (Re, 79) «Supongo que es el mismo cocinero ¿no Maxim?» ¿Pero por qué se llega a saber que se trata de un cocinero y no de una cocinera? La conversación de la mesa pasa en seguida a otras cosas y tampoco en el transcurso de la historia nos enteramos del sexo de esta persona. La lengua inglesa no nos lo revela en esta palabra. Por el contrario, la lengua alemana debe decidir inmediatamente, del mismo modo que las lenguas románicas, que tampoco tienen un nombre utilizable para los dos sexos. Por tanto, no les queda otro remedio a los traductores que, según su parecer, hacer de cook un cocinero o una cocinera, según parezca convenir mejor a tal residencia inglesa. Como el traductor alemán, el francés y

el portugués se han decidido en este caso por una cocinera, mientras que el italiano y el español lo hacen por un cocinero:

- e. El mismo cocinero. it. Lo stesso cuoco.
- f. La même cuisinière. p. A mesma cozinheira.

12.2. Una palabra o una frase no aparecen en un espacio vacío –aun cuando haya gramáticos que se alejan tanto de la realidad lingüística que producen esa impresión. Cada frase realmente hablada está incluida en una situación extralingüística que la fundamenta, en un contexto lingüístico que presenta una red de uniones y relaciones que en muchos casos son las únicas que posibilitan su comprensión. Es natural que la situación y el contexto nos den generalmente suficientes referencias al género de una persona como para que de hecho sea innecesario expresarlo mediante una palabra propia o una terminación particular. Para demostrarlo basta el siguiente ejemplo. La mujer de un pastor cuenta preocupada a una amiga que su ayudante de cocina espera un niño del jardinero:

- i. What I cannot understand, Mrs. Ashley, is where it happened? She shared a room with my cook... (Ra, 126).
- e. Lo que no puedo entender, Mrs. Ashley, es dónde sucedió. Comparte la habitación con la cocinera.
- a. Meiner Köchin. it. La cuoca.
- f. La cuisinière. p. A cozinheira.

En contra de lo que ocurría en el primer ejemplo, el traductor no puede dudar aquí ni un momento de que se trata de una cocinera: en la casa de un pastor no hay generalmente cocineros y en esta situación particular sería totalmente sin sentido pensar en ello. La situación y el contexto determinan claramente el género natural que hay que asociar aquí a la palabra cook sin que sea necesario para ello ningún signo lingüístico propio. Incluso se puede avanzar otro paso más: la situación social sin más nos permite casi siempre entender en cook una cocinera:

- i. The Parlor Maid: «Me and cook had a look at your book» (BM, 109).
- e. La doncella: «La cocinera y yo echamos un vistazo a su libro».
- a. Die Köchin. it. La cuoca.
- f. La cuisinière. p. A cozinheira.

Ninguna lengua dice siempre todo. Cada lengua hace una cosa explícita en un lugar, en otro deja otra implícita. La economía de la lengua consiste en la relación de lo dicho y de lo no dicho, en la mediación entre deficiencia y redundancia.

("NUESTROS IDIOMAS", Mario Wandruszka. Gredos 253)

## BIBLIOGRAFIA

"Illustrated guide to Madame Tussaud's", 1982.  
"Drácula", Textos paralelos - parallel texts. Heinemann Educational Books.  
Itaca S. A. Madrid.  
WANDRUSZKA, M.: *Nuestros idiomas*. Ed. Gredos. Madrid.

## SINTESIS

En cualquier centro escolar del País Vasco se está estableciendo el uso de tres lenguas y los objetivos se definen según ciertos modelos lingüísticos, pero ¿en qué medida se toma en consideración el contacto entre las tres lenguas? Viendo que en la Reforma del Ciclo Superior es necesario revisar este campo interlingüístico, hemos decidido verter sobre el papel los siguientes puntos:

### 1. El objetivo es servirse del contacto entre las lenguas.

En ello observamos los siguientes puntos:

- Se debe concretar el nivel que se exige al alumno en cada lengua. Es necesario definir la competencia que queremos obtener en cada lengua.
- Al mismo tiempo que los centros están inmersos en una realidad sociolingüística totalmente distinta, les han sido fijados los mismos objetivos.
- Los tres centros del modelo A que figuran en la Reforma están en un entorno no vasco-parlante, pero entre los cinco centros con modelo D hay niños que viven en un entorno de habla vasca (Zaldibia), los hay que viven en entorno bilingüe vasco-castellano (Elgoibar) y los hay también que viven en un entorno que solamente habla castellano (Bilbao). La necesidad de repensar y reorganizar el tratamiento del euskara y el castellano en estos centros es evidente.

– Mientras tanto, los niños reciben las lenguas por separado, sin reparar en ningún momento lo que supone el aprender tres lenguas al mismo tiempo y lo que podría derivarse del contacto interlingüístico.

En nuestra opinión, es necesario plantearse si el aprendizaje de tres lenguas al mismo tiempo conforma un nuevo campo de trabajo y si entre ellas surge alguna relación enriquecedora. Nosotros creemos que sí.

Resumiendo, es obvia la necesidad de adecuar el programa a la situación de cada lugar y estamos convencidos de que el contacto de las tres lenguas supone una aportación positiva, pero para ello es necesario definir el marco de trabajo.

## 2. El marco de trabajo.

Los objetivos que definen el marco de trabajo se explican en cinco puntos:

– El fortalecimiento del mecanismo de cambio de una lengua a otra, intentando llegar a un bilingüismo equilibrado.

– La organización a nivel de centro de un programa más comunicativo para que la tercera lengua tenga presencia fuera de clase. Ser consciente y preocuparse por la presencia de las tres lenguas y actuar de buen grado en las situaciones en que se usen varias lenguas o haya que cambiar de lengua.

– Darse cuenta de la dificultad de cambiar de una lengua a otra y aceptar el proceso de cada cual.

– Alcanzar un conocimiento de la identidad de cada lengua. Saber diferenciar los campos de acción de cada lengua en dos planos: el estructural y el significativo.

– Agilizarse en la descodificación y recodificación del mensaje. Utilizando adecuadamente el criterio de equivalencia, sabiendo razonar las distintas opciones.

De los cinco objetivos mencionados, el segundo y el tercero dependen de la actitud, el cuarto de la capacidad y los demás del contenido. Esta diferenciación es necesaria para comprender el planteamiento en su conjunto.

## SYNTHESIS

In any school in the Basque Country, the use of three languages is being established, and the objectives are defined according to certain linguistic models, but how far is the contact between the three languages taken into consideration? Having seen that this interlinguistic field has to be revised in the Higher Education Reform, we have decided to put down on paper the following points.

**1. The objective is to make use of the contact between the languages.**

Here we observe the following.

- The level demanded of the pupil in each language must be decided upon. The desired competency in each language must be defined.
- At the same time as the educational centres are surrounded by a totally different sociolinguistic reality, the same objectives have been imposed upon them.
- The three model "A" centres which appear in the Reform are in non Basque speaking environments but among the 5 model "D" centres there are children who live in a Basque speaking environment (Zaldibia), those who live in a bilingual Basque-Spanish speaking area (Elgoibar) and those who live in a Spanish only speaking environment (Bilbao) the need to reorganize the way Basque and Spanish are dealt with in these centres is evident.

Meanwhile, the children receive the three languages separately, without considering at any time what learning three languages at the same time means, and what may be derived from an interlinguistic contact.

In our opinion, it is necessary to think whether the learning of three languages at the same time brings about a new field of work and if an enriching relationship between them arises. We think it does.

All in all, the need to adapt the programme to the situation of each place is obvious and we are convinced that the contact between the three languages must be positive, but in order that this occurs, a frame of work must be defined.

**2. The framework**

There are 5 points to explain which define the work set out.

- The strengthening of the changeover mechanism from one language to another, aiming for balanced bilingualism.
- The organization in each centre of a more communicative programme so that the third language is present out of class. Be conscious of and take care that the three languages are present, taking into account the situations in which various languages are used or a change of language must take place.
- Realize the difficulty in changing from one language to another and accept the process of each and all.
- Reach the knowledge of the identity of each language. Know how to differentiate the fields of action of each language on two levels: the structural and the significative.
- Become agile in the decoding and recoding of the message. Adequately using a balancing criteria, knowing how to reason with the different options.

Of the five objectives mentioned, the 2nd and 3rd depend on the attitude, the 4th on capacity and the others on content. This differentiation is necessary to fully understand the idea.